

# **TRAKZIO MEKANIKODUN IBILGAILUEN GAINEN ZERGA ARAUTZEN DUEN ZERGA ORDENANTZA. 2020. URTEA**

## **I.- XEDAPEN OROKORRAK**

1. artikulua.- Udal honek, Lurralde Historikoko Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauan eta Zergaren Foru Arau berezian ezarritakoaren arabera, Trakzio Mekanikodun Ibilgailuen gaineko Zerga eskatzen du ordenantza honen arabera. Ezar daitezkeen tarifen taula ordenantza honen eraskinean adierazten da, honen zatia aplikatu beharreko tarifak biltzen dituen eranskina da.

2. artikulua.- Ordenantza udal mugarte osoan ezartzen da.

## **II.- ZERGA EGITATEA**

3. artikulua.- Zerga honen zerga egitatea da:

1.- Bide publikoetan ibil daitezkeen trakzio mekanikodun ibilgailuen titulartasuna, horiek edozein mota edo kategoriakoak izanda ere.

2.- Ibilgailuek bide publikoetan ibili ahal izango dira, erregistro publiko egokietan matrikulatuak izan badira eta erregistro horietan baxa sortu ez badute. Halaber, zerga honen ondoretarako, ibilgailuak bide publikoetan ibili ahal izango dira, aldi baterako baimenak eta turismo matrikula badute.

3.- Ez dute zerga hau ordaindu beharrik hurrengo ibilgailuek:

a) Modeloa zaharrekoak direlako erregistroan baxa emanda dauden ibilgailuei baimena eman ahal zaie zirkulatzeko, salbuespen gisa, erakusketa, lehiaketa eta lasterketarako.

b) Trakzio mekanikoko ibilgailuak eramaten dituzten atoi eta erdi-atoiak, zama erabilgarria 750 kilo baino gehiagokoa ez bada.

## **III. SALBUESPENAK ETA HOBARIAK**

4. artikulua.- 1.- Salbuespenak. Zerga hau ordaintzetik salbuetsita daude:

a) Estatuko, Euskal Autonomia Erkidegoko, Lurralde Historikoko eta toki erakundeetako ibilgailu ofizialak, Defentsari edo hiritarren segurtasunari atxikitakoak.

b) Ordezkaritza diplomatikoetako eta bulego kontsularretako ibilgailuak, eta baita hurrenez hurreneko herrialdeetako hiritarrak diren eta karrera kautotuak

dituzten agente diplomatikoen eta funtzionario kontsularren ibilgailuak ere, baldin eta kanpotik identifikaturik badaude eta hedaduran eta graduan elkarrekikotasuna badute.

Halaber, Espainiako Estatuan egoitza edo bulegoa duten nazioarteko erakundeen eta erakunde horietako estatutu diplomatikodun funtzionario edo kideen ibilgailuak.

c) Nazioarteko hitzarmen edo itunetan ezarritakoaren ondorioz halakotzat jo beharreko ibilgailuak.

d) Anbulantziak eta zuzenean osasun laguntzarako edo zauritu nahiz gaixoak garraiatzeko erabiltzen diren gainerako ibilgailuak.

e) Mugikortasun murriztua duten pertsonentzako ibilgailuak, abenduaren 23ko 2822/1998 Errege Dekretuak, Ibilgailuen Erregelamendu Orokorra onartzen duenak, II. eranskinaren A letran aipatutakoak, pertsona desgaituen izenean matrikulatuta daudenean.

Era berean, salbuetsita daude 14 zaldi fiskaletik beherako ibilgailuak, baldin eta desgaituen izenean matrikulatuta egonik beraiek ez beste inork erabiltzeko badira. Salbuespen hori aplikatzekoa izango da inguruabar horiek irauten duten bitartean, bai ezgaituek gidatutako ibilgailuen kasuan, bai haiek garraiatzeko ibilgailuen kasuan ere.

Aurreko bi idatz-zatietan aurreikusitako salbuespenak ez zaizkie aplikatuko aldi berean ibilgailu bat baino gehiago dauzkaten subjektu pasiboiei.

Letra honetan ezarritakoaren ondorioetarako, pertsona desgaitutzat honako hauek hartuko dira:

a) Minusbaliotasun maila 100eko 33koa edo handiagoa eta 100eko 65ekoa baino txikiagoa duten pertsonak, mugikortasun murriztuko egoeran badaude. Mugikortasun murriztua dutela ulertuko da abenduaren 23ko 1971/1999 Errege Dekretuak, minusbaliotasun maila aitortu, ezarri eta kalifikatzeko prozedurari buruzkoak, 3. eranskinean jasotzen duen baremoaren A, B edo C letretako egoeretan sartuta daudenean edo baremo horren D, E, F, G edo H letretan 7 puntu edo gehiago eman zaizkienean.

b) Minusbaliotasun maila 100eko 65ekoa edo handiagoa duten pertsonak.

Aurreko a) eta b) letretan aipatutako pertsonak mugikortasun murriztuko A egoeran badaude 1971/1999 Errege Dekretuak 3. eranskinean jasotzen duen baremoaren arabera, 14 zaldi fiskaleko muga ez zaie aplikatuko, baldin eta ibilgailua gurpil aulkia eramateko egokituta badago.

Hemen ezarritako salbuespenak araututa daude eta eskatuz gero emango dira; haiek emateko berariazko egintza administratiboa beharko da, udal organo eskudunak haiek eskatu eta behar diren baldintzak betetzen dituzten subjektu pasiboari emandakoa. Eskarian, ibilgailuaren ezaugarriak, haren matrikula eta onuraren arrazoa aipatuko dute, eta harekin batera ondoko agiriak aurkeztu beharko dituzte:

-Zirkulazio baimenaren fotokopia.

-Desgaitasuna egiaztatzen duen agiria, bai eta mugigarritasun murriztuko egoera egiaztatzen duena ere, hala badagokio; organo eskudunak emandakoa; ez da nahikoa izango ezintasunak baloratzeko taldeek egindako irizpen tekniko-fakultatiboa aurkeztea.

-Ibilgailua minusbaliatuak baino erabiliko ez duela dioen zinpeko aitortpena.

Administrazioak salbuespena deklaratu ondoren, hura eman dela egiaztatuko duen dokumentu bat egingo du.

7/2003 Foru Araua indarrean sartu aurretik Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zergari buruzko ekainaren 30eko 7/1989 Foru Arauko 2.1.d) artikulua testuaren arabera Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zerga ordaintzetik salbuetsirik zeuden ibilgailuek, baldin eta Foru Arau honetan 2.1.d) artikuluari emaniko testu berrian finkaturiko baldintzak ez badituzte betetzen, aipaturiko 2.1.d) artikulua aurreko testuan ezarritako salbuespena aplikatzen jarraitzeko eskubidea izango dute, ibilgailuak salbuespen horretarako finkaturiko baldintzak betetzen dituen bitartean.

Oro har, salbuespenak eskaria egin eta datorren ekitaldian sartuko da indarrean, eta ezin izango du atzerako eraginik izan. Hala eta guztiz ere, onura fiskala likidazioa irmoa izan baino lehenago eskatzen baldin bada, eman egingo da, baldin eta tributuaren sortzapenaren datan onura horretaz baliatzeko eskatzen diren baldintzak betetzen badira.

f) Hiri garraio publikoko zerbitzurako erabiltzen diren autobus, mikrobus eta gainerako ibilgailuak, bederatzi plaza baino gehiago baldin badituzte, gidariarena barne.

g) Nekazaritza Ikuskaritzarako Kartila daukaten traktoreak, erremolkeak, sasi-erremolkeak eta makineria.

#### 4. Artikulua 2.- Hobariak

a) Motor elektrikoa daukaten ibilgailuek %75eko hobaria izango dute.

b) %100eko hobaria izango dute ibilgailu historikoek edo gutxienez 25 urteko antzintasuna dutenek, fabrikazio datatik aurrera zenbatuta edo, fabrikazio data jakin ezean, lehenbiziko matrikulaziotik edo ibilgailu mota fabrikatzeari utzi zitzaion datatik aurrera zenbatuta.

c) Zergaren kuotan hobari bat izateko eskubidea izango dute, artikulua honetan araututako kopurukoa eta artikulua honetan araututako baldintzapean, 5 plazako edo gehiagoko turismo-ibilgailuek, baldin eta haien titularra bada indarrean dagoen legediaren arabera familia ugarizat jotzen den familia bateko kideren bat, familia errenta estandarizatua 40.000 eurotik beherakoa bada.

Familia bakoitzeko ibilgailu bakarrari aplikatuko zaio hobaria.

Hobari hori ez da bateragarria izango ibilgailu berarentzako trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergaren beste ezein onura fiskalekin.

Hobari horrez gozatu ahal izateko, dagokion eskaera aurkeztu beharko da ondoreak sortuko dituen zergaldiaren aurreko ekitaldian, honako dokumentuekin batera:

- Familia ugariaren txartelaren fotokopia, indarrean dagoen legediaren arabera indarrean dagoena, Bizkaiko Foru Aldundiak emandakoa.
- Ibilgailuaren azterketa teknikoko txartela.
- Familia ugariko kideek Ogasunean aurkeztutako azken errenta aitopenen fotokopia. Ez badute errenta aitopena egin beharrik, Ogasunak emandako ziurtagiria aurkeztu beharko dute, baita erakunde berak egindako dokumentua ere, errentaren datu fiskalak jasotzen dituenak.

Hala ere, subjektu pasiboek nahitaez eman behar dute hobari horren baldintzetan eta betebeharretan gertatutako aldaketen berri; aldaketa horiek ondorioak sortuko dituzte gertatu eta hurrengo ekitalditik aurrera.

Administrazioak ofizioz egiaztatu ahal izango du hobaria emateko beharrezko baldintzak betetzen direla, eta eskatu ahal izango du aurkezteko subjektu pasiboak hobarirako eskubidea duela frogatzeko beharrezkoak diren dokumentu guztiak.

Hobariaren ehunekoa izango da familia ugariaren familia errenta estandarizatuaren arabera dagokiona, honako koadro honi jarraikiz:

Familia errenta estandarizatua	Hobariaren ehunekoa
10.000 euroraino	% 90

10.001 eurotik 20.000 euroraino	% 50
20.001 eurotik 30.000 euroraino	% 25
30.001 eurotik 40.000 euroraino	% 10

## FAMILIA ERRENTA ESTANDARIZATUAREN KALKULUA

Familia errenta (zerga oinarri orokorra gehi PFEZaren aurrezpenaren zerga-oinarria) familia-unitatearen ekibalentzia koefizientearekin zatitzearen emaitza izango da (koefiziente egokiak batuko dira):

<b>Subjektu pasiboa</b>	<b>Koefizientea</b>
Ezkontidearekin edo izatezko bikotekidearekin	1,5
Ezkontiderik edo izatezko bikotekiderik gabe	1,3
Genero indarkeriaren biktima	1,3
Familia-unitateko ume bakoitza	0,3
Familia-unitateko kideetakoren batek desgaitasunik badauka: =>% 33	0,3

2.- Artikulu honetako 1. idatz-zatiko f) eta g) letretan aipatzen diren salbuespenez eta 2. idatz-zatiko aipaturiko hobarietaz baliatu ahal izateko, interesdunek haiek eskatu beharko dituzte; eskarian, ibilgailuaren ezaugarriak, haren matrikula eta onuraren arrazoia aipatuko dute. Udal administrazioak hura deklaratu ondoren, eman egin dela egiaztatuko duen agiria egingo du eta eragina izango dituzte eskaeraren datarako hurrengo ekitaldian.

## IV. SUBJEKTU PASIBOAK

5. artikulua.- Zerga honen subjektu pasiboak dira Zergaren Foru Arau Nagusiak aipatzen dituen pertsona fisikoak edo juridikoak eta erakundeak, zirkulazio baimenean ibilgailua euren izenean dutenak.

## V. KUOTA

6. artikulua.- 1.- Zerga eraskinean ageri den tarifen taularen arabera eskatuko da.

2.- Zein ibilgailu mota den zehazteko, arau bidez zehazten dena izango da kontutan eta baita hurrengo arauak ere:

a) Furgonetatzat hartuko da turismo ibilgailu bat pertsona eta gauzen garraiorako moldatzea, horretarako eserlekuak eta kristalak kenduz, tamaina

edo ateen antolamendua aldatuz edo ibilgailuaren jatorrizko modeloa funtsean aldatzen ez duten beste aldaketa batzuk eginez. Furgonetek turismo gisa ordainduko dute, euren zerga potentziaren arabera, salbu eta hurrengo kasuetan:

Lehena. Ibilgailua bederatzi lagun baino gehiago, gidaria barne, garraiatzeko gaiturik badago, autobus gisa ordainduko du.

Bigarrena. Ibilgailuak 525 kilo zama erabilgarri garraiatzeko baimena badu, kamioi gisa ordainduko du.

b) Zerga honen ondoreetarako, motogurdiak motozikletatzat hartuko dira eta, beraz, euren zilindraiaren ahalmenaren arabera ordainduko dute.

c) Ibilgailu artikulatuen kasuan, aldi berean eta bereizirik ordainduko dute arrastaketarako potentzia daramatenek, arrastaturiko atoei eta erdiatoiei.

d) Ziklomotoreek, atoei eta erdiatoiei euren ahalmenagatik matrikulatu behar ez badute, bideetan ibiltzeko gai izango dira Industri Ordezkaritzak ziurtagiri egokia luzatzen dien unetik edo, hala denean, benetan zirkulazioan daudenean.

e) Trakzio mekanikodun beste ibilgailu batzuek garraiatu edo arrastatu gabe bide publikoetan zehar ibil daitezkeen autopropulsaturiko makinek traktoreei dagozkien tarifak ordainduko dituzte.

f) Quad kuadrizikloek ziklomotoreek bezala ordainduko dituzte zergak. Ezaugarrien ziurtagirian, "ibilgailuaren sailkapena" atalean, lehen bi digituetan 03 agertzen da.

g) Quad kuadrizikloek eta ibilgailu bereziek, traktoreek bezala ordainduko dituzte zergak ibilgailuaren potentzia fiskalaren arabera. Ezaugarrien ziurtagirian, "ibilgailuen sailkapena" atalean, Kuadrizikloen kasuan, lehen bi digituetan 06 agertzen da, eta, ibilgailu berezien kasuan, berriz, 64.

h) Betiere, tarifei buruzko D) letrak aipatzen duen "traktoreak" izenburu orokorra traktore-kamioei eta "obra eta zerbitzuetarako traktoreei" dagokie.

i) Autokarabanak turismo gisa hartuko dira eta potentzia fiskalaren arabera ordainduko dute, zerga honen ondoreetarako.

j) Zaldi fiskaletan adierazitako potentzia fiskala abenduaren 23ko 2822/98 Erreal Dekretuaren bidez onesten den Ibilgailuen Erregelamenduaren 11.20 artikuluan xedatutakoaren arabera ezarriko da.

## **VI. ZERGALDIA ETA SORTZAPENA**

7. artikulua.- 1.- Zergaldia egutegiko urtearekin bat dator, salbu eta ibilgailua lehen aldiz erosten denean edo baxa kasuetan. Kasu horietan, zergaldia ibilgailua erosten den egunean hasiko da eta Trafikoko Burutzan baxa sortzen den egunean amaituko da, hurrenez hurren.

2.- Zerga zergaldiaren lehen egunean sortzen da.

3.- Lehenengo erositako ibilgailua bada edo halakoan haren behin- betiko baja emanda badago, kuotaren zenbatekoa hilabete naturalen erara hainbanatuko da, baita alta-bajak emandako egunarena ere.

4.- Era berean, bidezkoa izango da kuotaren banaketa proportzionala egitea, ibilgailuaren ebaspen edo lapurreta kasuetan aldi baterako baja eskatzen bada, betiere aldi baterako baja hori kasuan kasuko erregistro publikoan gertatzen den unetik aurrera.

## **VII. KUDEAKETA**

8. artikulua.- Zergaren kudeaketa, likidazioa, ikuskapena eta bilketa, eta baita zerga kudeaketaren bidez eman diren egintzen berrikuspena ere, ibilgailuaren zirkulazio baimenean ageri den bizilekuko udalari dagokio.

9. artikulua.- Udalak zerga hau autolikidazio gisa eskatu ahal izango du.

10. artikulua.- Zerga ordaindu dela benetakotzeko, udal administrazioak ziurtagiri bat luzatuko du.

11. artikulua.- Borondatezko ordainketa egiteko epea urtero Getxoko Udalaren Kudeaketa, Ikuskaritza eta Diru-Bilketari buruzko Ordenantzaren arabera prestaturiko egutegian ezartzen dena izango da.

12. artikulua. 1.- Trafikoko Bulego Nagusian ibilgailu baten matrikulazioa, zirkulatzeko gaitasunaren ziurtagiria edo behin betiko baja eskatzen dutenek, zerga ordaindua dutela egiaztatu beharko dute aldeztu aurretik. Egiaztatzeko betebeharrak horretatik kanpo geratuko dira hamabost edo urte gehiago dituzten ibilgailuen behin betiko bajak.

2.- Gauza bera egin beharko dute ibilgailuen titularrek, Trafikoko Burutzan ibilgailuaren zaharberriketaren berri ematen dutenean, baldin eta ibilgailuaren sailkapena zerga honen ondoretarako aldatzen bada, eta baita transferentzia kasuetan eta ibilgailuaren zirkulazio baimenean ageri den bizilekua aldatzen denean ere.

3.- Trafikoko burutzek ez dituzte baxako edo ibilgailuen transferentziako espedienteak tramitatuko, aurretiaz zerga ordaindu dela benetakotzen ez bada.

13. artikulua.- Ibilgailuari matrikula berria jarri edo aldarazpenak egiten bazaizkio eta horiek ibilgailuaren sailkapena zergaren ondoreetarako aldatzen badute, interesatuek agiri batzuk aurkeztu beharko dituzte udal administrazioan, zergaren matrikulan sartuak izan daitezen, matrikulazio edo aldarazpen egunetik zenbatzen hasitako 30 asteguneko epearen barruan. Agiri horiek hurrengoak dira:

- a) Zirkulazio baimena.
- b) Ezaugarri teknikoen ziurtagiria.
- c) NAN edo IFK.

## **VIII. ALDI BATERAKO XEDAPENA**

Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zerga aplikatzen hasten denean udal zirkulazio zergan onura fiskalen bat daukatenez hartaz baliatzen jarraitu ahal izango dute, lehenbizi hura amaitzen den arte, eta erabiltzeko mugarik izan ezean, 1992ko abenduaren 31 arte, urte hori barne.

## **IX. AZKEN XEDAPENA**

Udalaren plenoak 1989ko abenduaren 29an onetsi zituen eta plenoaren erabakiz 1990ko azaroaren 30ean, 1991ko abenduaren 20an eta 1992ko azaroaren 27an, 1993ko azaroaren 26an eta 1995eko azaroaren 24an, 1996ko apirilaren 29an, 1997ko urtarrilaren 31n, 1997ko abenduaren 19an eta 2001eko irailaren 28an, 2003ko azaroaren 28an, 2004ko azaroaren 26an, 2005eko azaroaren 25ean, 2006 abenduaren 22an, 2012 abenduaren 27an, 2016ko apirilaren 27an, 2018ko urtarrilaren 31an, 2019ko urriaren 31an, aldatu zen; Bizkaiko Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da eta indarrean sartuko da 2020ko urtarrilaren 1ean eta indarrean iraungo du bera aldaraztea edo indargabetzea erabakitzen den arte.

### **ERANSKINA**

#### **A) Turismoak**

8 zerga z. baino gutxiago	25,20 euro
8tik 11.99ra z.ra	63,00 euro
12tik 13,99ra zerga z.	127,05 euro



14tik 15,99ra z.ra	132,15 euro
16tik 19,99ra zerga z.	261,30 euro
20 z.z. tik aurrera	369,75 euro

### **B) Autobusak**

21 eserleku baino gutxiagokoak	143,55 euro
21etik 50 eserlekurainokoak	200,55 euro
50 eserleku baino gehiagokoak	250,35 euro

### **C) Kamioiak**

1.000 kg zama erabilgarri baino gutxiagokoak	73,35 euro
1.000tik 2.999 kg zama erabilgarrirainokoak	143, 55 euro
2.999tik 9.999 kg zama erabilgarrirainokoak	200,55 euro
9.999 kg zama erabilgarri baino gehiagokoak	250,35 euro

### **D) Traktoreak**

16 zerga z. baino gutxiagokoak	30,60 euro
16tik 25 zerga z.rainokoak	50,85 euro
25 zerga z. baino gehiagokoak	143,55 euro

### **E) Trakzio mekanikodun ibilgailuek arrastaturiko atoiak eta erdiatoiak**

751tik 1.000 kg zama erabilgarrirainokoak	31,50 euro
1.001etik 2.999 kg zama erabilgarrirainokoak	52,50 euro
2.999 kg zama erabilgarri baino gehiagokoak	147,00 euro

## **F) Beste ibilgailu batzuk**

Ziklomotoreak	7,50 euro
125 z.a.erainodun motozikletak	8,55 euro
125etik 250 z.a.erainoko motozikletak	16,80 euro
250etik 500 z.a.erainoko motozikletak	29,70 euro
500 eta 1.000 c.c. bitarteko motozikletak	90,87 euro
1.000 c.c. baino gehiagoko motozikletak	181,74 euro